

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

43. astea (2025eko urriaren 20tik 26ra)

Gripe-birusaren zirkulazioak goranzko joera du, tasarik altuenak Bizkaian aurkitzen direlarik. Bronkiolitis eta COVID-19 diagnostikoek behera egin dute aste honetan.


- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 350,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (366,0/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak azken asteetako goranzko joera mantentzen du. Bronkiolitisaren eta COVID-19ren tasek, ordea, behera egin dute aurreko astearekin alderatuta.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 57 lagin jagoleen % 66,7 baieztatu da, 17 gripe-birus eta ABS bat detektatu direlarik, baina ez SARS-CoV-2rik. 17 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 12,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,8/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA tasa eta larrialdietako gripe sindromearena intentsitate maila baxuan mantentzen dira; LMAko bronkiolitisarena (<2 urte), ordea, oinarritzko mailan aurkitzen da.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 246 gripe-birus, 52 SARS-CoV-2 eta 9 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen mailako arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 350,5 kasukoa izan da (366,0/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 228,3/100.000 izan da Araban, 408,2/100.000 Bizkaian eta 315,3/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 3151,1 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1731,6 eta 458,2 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 153,5 kasukoa izan da (157,2/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute aurreko astearekin alderatuta ESI gehienetan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 43. astea	Tasa 42. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	248,1	267,5	0,93 (0,84-1,03)
Arabar Errioxako ESI	407,6	560,4	0,73 (0,50-1,05)
Barakaldo-Sestaoko ESI	375,4	386,4	0,97 (0,86-1,10)
Barrualde-Galdakaoko ESI	481,3	406,4	1,18 (1,10-1,28)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	411,6	452,7	0,91 (0,85-0,98)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	386,9	411,7	0,94 (0,84-1,05)
Uribeko ESI	304,9	300,0	1,02 (0,91-1,13)
Bidasoako ESI	292,9	304,4	0,96 (0,80-1,15)
Debararrenako ESI	357,9	355,2	1,01 (0,85-1,20)
Debagoienako ESI	246,5	223,2	1,10 (0,88-1,38)
Donostialdeako ESI	293,2	354,8	0,83 (0,76-0,90)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	340,8	389,5	0,88 (0,75-1,01)
Tolosaldeako ESI	361,4	441,7	0,82 (0,69-0,97)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasak 21,5 kasu 100.000 biztanleko balioraino egin du gora (15,5/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin eta 158,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (259,8/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 3,6 kasutaraino jaitsi da (6,5/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 57 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 66,7 baieztatu dira. 17 gripe-birus (12 AH3 y 5 AH1) eta ABS bat atzeman dira, baina ez SARS-CoV-2rik. 17 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 3,1 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak igoera nabarmena izan du eta % 29,8an kokatu da (% 18,8 aurreko astean). Bestalde, ABSren denboraldiko lehen detekzioa eman da LMA. Errinobirusak, beheranzko joera aurkeztu arren, positibotasun altua izan du berriro ere, % 29,8an kokatuz (% 35,9 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE

	43. astea		42. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	17	29,8	12	18,8	39	18,2
SARS-CoV-2	0	0,0	2	3,1	7	3,3
ABS	1	1,8	0	0,0	1	0,5
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	3	5,3	2	3,1	11	5,1
Adenobirus	1	1,8	0	0,0	1	0,5
Errinobirus	17	29,8	23	35,9	85	39,7
Urtaroko CoV	0	0,0	1	1,6	4	1,9
Enterobirus	2	3,5	1	1,6	3	1,4

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 12,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,8/100.000 aurreko astean), 13,7/100.000 gizonetan eta 12,1/100.000 emakumeetan.




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 43,6 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 45-64 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 36,7 eta 7,7 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 2,0koa izan da 100.000 biztanleko (1,6/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,2 kasukoa 100.000 biztanleko (0,5/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 2,9ra jaitsi da (% 6,2 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna %21,3an mantendu da aste honetan (% 21,2 aurreko astean) eta ABSrena % 0,6koa izan da (% 0,0 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna altu mantentzen da % 27,9an (% 32,6 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	43. astea		42. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	208	2,9	193	6,2	827	6,7
Influenza	169	21,3	146	21,2	638	19,3
ABS	158	0,6	133	0,0	594	0,5

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbateteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIArein zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gaingitu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromean, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gainditu zela, aste honetan intentsitate maila baxuan mantentzen delarik.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, lehen mailako arretako 2 urtetik beherako bronkiolitis diagnostikoei dagokionez, tasa atalase epidemikoaren azpitik kokatzen da.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 246 gripe-birus, 52 SARS-CoV-2 eta 9 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 246 gripe-birusetatik, 171 A motakoak izan dira, 38 A(H3), 35 A(H1)pdm09 eta 2 B motakoak. 2025/40 astetik 743 detekzio erregistratu dira, 741 (% 99,7) A motakoak eta 2 (% 0,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 401 birusetatik, 205 (% 51,1) A(H3) eta 196 (% 48,9) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko urriak 30

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza